


Iritzi Generoak

2019-2020



Bong Joon-ho
zinemagile hegokorearraren
Parasite (2019) filmaren irudi bat.



7. GAIA:

Zinema kritika

- 7.1. Zer da?
- 7.2. Egile zinemaren iraultza
- 7.3. Kazetaritzako zinema kritika eta zinema kritika akademikoa
- 7.4. Zinema kritikaria: bertuteak eta bekatuak
- 7.5. Zinema kritikaren xede nagusiak
- 7.6. Zinema kritika: izaera eta berezitasunak
- 7.7. Zinema kritikaren egitura
- 7.8. Euskarazko zinema kritika



7. GAIA:

Zinema kritika

7.1. Definizioa

Film jakin baten kalitatea epaitzen duen iritzi testua da. Kritikariak, pelikularen inguruko balorazioa eskaintzeaz gain, irakurlea ere orientatu behar du.

Peter Farrellyren
Green Book
(2018) filma.




7. GAIA:

Zinema kritika

7.2. Egile zinemaren iraultza

- Publizitate kutsuko zinema kritikak. XX. mende hasieran argitaratzen hasi ziren eta publizitate kutsua zuten. Filma laudatzera mugatzen ziren.
- **Cahiers du cinéma** aldizkaria eta egile zinema. Zinema artea da eta, hortaz, zuzendaria da artista. Egilea.
- Kritika klasikoa. Talde oso baten emaitza da filma: ekoizlea, zuzendaria, aktoreak, teknikariak...

Jordan Peele zinemagilearen
Us (2019)



7. GAIA: Zinema kritika


Cahiers du Cinéma

1951. urtean sortu zen **Cahiers du Cinéma** Frantzian. André Bazin izan zen lehen zuzendaria eta bere arima.

-Zinema frantziarraren kritika gordina. Lotura estuegia du literaturarekin.

-Ekoizlearen agintearen aurka matxinatzen dira eta zuzendaria bihurtzen da egile zinemaren oinarri.

Renoir, Tati eta Melville goratzen dituzte. Baina baita artisautzat jotzen ziren Hitchcock, Hawks eta Ford.



7. GAIA:

Zinema kritika

Nouvelle Vague

- Teoriatik praktikara.

Cahiers du Cinéma aldizkariko kritikariak zinema egitera igaro ziren 50eko hamarkada amaieratik aurrera, **Nouvelle Vague** zinema mugimenduari hasiera emanaz.

-Izenik esanguratsuenak:

Françoise Truffaut, Jean-Luc Godard, Éric Rohmer, Claude Chabrol, Jacques Rivette, Agnès Varda.

-Film ezagun batzuk:

Los cuatrocientos golpes (1959)

Al final de la escapada (1960)

Mi noche con Maud (1969)

Cléo de 5 a 7 (1962)

Jean-Luc Godard:
À bout de souffle (1960)



Jean Seberg

7. GAIA: Zinema kritika



Egile zinema, egungo zinema kritikaren oinarri

Egile zinema egungo zinema kritikaren oinarri bada ere, komeni da jarrera eklektiko bat izatea.

-Filmaren egile gisa hartzen da ere zuzendaria egun. Dena dela, ez da egile bakarra. Egile esanguratsuena izanik ere, gidoigileari, argazki zuzendariari, musikagileari nahiz aktore taldeari ere euren meritua aitortu behar zaie.

Citizen Kane (1941).

Zuzendaria: Orson Welles.

Beste egileak: Herman J. Mankiewicz,
Bernard Herrmann, Gregg Toland,
Joseph Cotten...



7. GAIA:

Zinema kritika

7.3. Kazetaritzako zinema kritika eta zinema kritika akademikoa

7.3.1. Kazetaritzako zinema kritika

- Kontsumora zuzendutako kritika da. Hartzailea zabala eta askotarikoa.
- Filma ikusi aurretik irakurria izan dadin pentsatua. Oinarrizko informazioa eskaintzen dio irakurleari erabaki dezan.
- Testua, laburra eta arina.




7. GAIA:

Zinema kritika

7.3.2. Zinema kritika akademikoa

- Aldizkari berezietan argitaratua.
- Zinemaz asko dakitenei zuzendua.
- Testu luze eta sakonak.
Teknizismoak, kontzeptu akademikoak.




7. GAIA:

Zinema kritika

7.4. Zinema kritikaria: bertuteak eta bekatuak

7.4.1. Zinema kritikariaren bertuteak

- 1. Prestakuntza.** Zinemaren historia ondo menderatzeaz gain, jakintza teoriko oparoa izatea eta film asko ere ikustea.
- 2. Ezagutza eguneratua.** Zinema joera berriak eta zinemagile garaikideak behar bezala ezagutzea.
- 3. Zintzotasuna.** Aurrez hausnartu eta ezarritako printzipioen arabera baloratzea. Presioei aurre egitea.
- 4. Adierazteko gaitasuna.** Irakurle xeheari gogoetak komunikatzeko gaitasuna.



7. GAIA:

Zinema kritika

7.4. Zinema kritikaria: bertuteak eta bekatuak

7.4.2. Zinema kritikariaren bekatuak

1. Ustelkeria.

Lagunen filmak laudatu eta arerioenak egurtzea.
Kazetaren interesen aurrean men egitea.
Ekoizleen dirua edo opariak jasotzea.

2. Handikeria eta harropuzkeria.

Zinemagileei errespetua galtzea eta lana behar bezala ez egitea.

3. Irudimenik eza.

Ezagutza teorikorik izan ez,
eta azaleko testuak idaztea.

4. Aurreiritziak eta topikoak erruz erabiltzea.

Zinema komertziala gorrotatzea eta
esperimentazio iruzurrak goestea, kasu.

5. Hizkera ulergaitza.

Hizkera ulergarria ez
bada, ezinezkoa izango da irakurlea
informatu eta orientatzea.



7. GAIA:

Zinema kritika

7.5. Zinema kritikaren xede nagusiak


1. Filmaren kalitatea epaitzea

Filma interpretatu eta interesgarria den ala ez epaitzea argudioak emanaz.

2. Irakurlea orientatzea. Zinema eskaintza oparoa denez gero, irakurleak aukeratu behar du. Kritikariak haren hautaketa erraztea du helburu.

3. Heztea. Film eta egile ezezagunak aurkezten dizkio irakurleari. Beste sorkuntza lanekin harremanak sortzen ditu eta sarri testuinguru historikoa lantzen du. Finean, artelana ulertzeko gakoak dakartzkio irakurleari.

4. Entretenimendua. Testuak entretenigarria behar du izan.



7. GAIA:

Zinema kritika

7.6. Zinema kritika: izaera eta berezitasunak

Denys Arcand quebectarraren
La chute de l'empire américain (2018)

1. Epai bat da

(kritikós: epaitzen duena)

Baloratu egiten du
argudioak eskainiz.

2. Sinatu egiten da

Iritzi pertsonala da eta
sinadurak berebiziko
garrantzia du.



7. GAIA:

Zinema kritika

3. Maiztasuna: kazetaren araberakoa.

-Kazeta handietan astean behin.

El País: ostiraletan kritika oro.

-Kazeta txikiagoetan, astean bizpahiru kritika (*Berria*, *Gara*, *El Correo*...).

4. Testu labur, arin eta

ulerterreza. Gogoeta bat den arren, erakargarria behar du izan.



7. GAIA:

Zinema kritika

7.7. Zinema kritikaren egitura

1. Titulua

- Laburra.
- Testuaren mamia islatzen du.
- Irudimentsua.

2. Fitxa teknikoa

- Filmaren izenburua:
- Puntuazioa: */**/***/****/*****
- Zuzendaria:
- Aktoreak:
- Gidoia:
- Argazkia:
- Musika:
- Herrialdea:
- Generoa:
- Iraupena:
- Zinema aretoa:

www.fppt.info



7. GAIA:

Zinema kritika

7.7. Zinema kritikaren egitura

3. Testua

- *Zuzendariaren zinemaren nondik norakoak azaldu.
- *Aztertuko den filmaren argumentua labur-labur.
- *Mezua: pelikulak dakarren mezua interpretatu.
- Landutako gai nagusiak.
- Mezu nagusia islatzen duen eszenaren bat tartekatu.

Nuri Bilge Ceylan zinemagilearen *Ahlat Agaci* (2018) filma.




7. GAIA:

Zinema kritika

7.7. Zinema kritikaren egitura

4. Balorazioa

- Filmaren alde onak eta txarrak adierazi.
- Aktoreen interpretazioak balioetsi.
- *Epaia:
 - Esaldi bakar ala bakan batzuetan epaia eman.



7. GAIA:

Zinema kritika

7.8. Euskarazko zinema kritika

Hiru eredu:

Koldo Mitxelena

Egan aldizkaria (1954-61)

Andres Gostin


Euskaldunon Egunkaria (90. hamarraldia)

Gontzal Agote

Berria 2005-2019

Zinea.eus

www.fppt.info



7. GAIA:

Zinema kritika

Giulietta Masina
Felliniren *La Strada*
(1954) filmean.

Koldo Mitxelenaren zinema kritikak

- Titulu eta fitxa teknikorik ez
- Gidoiaren esparrua lantzen du
- Ironiaren erabilera
- Kutsu intelektuala
- Literatur erreferentzia anitz

Andres Gostinen zinema kritikak

- Kritika orok titulu edo fitxa teknikoa
- Cahiers du Cinéma*-ren eragina
- Gidoia eta eszenaratzea lantzen ditu
- Filmak dakarren gaiari buruzko gogoetak
- Zinema erreferentzia anitz



7. GAIA:

Zinema kritika

Kim Basinger
Los Angeles Confidential (1997)
filmean

Gontzal Agoteren zinema kritikak

- Kritika orok titulu eta fitxa teknikoa
- Edukiari formari baino garrantzi gehiago eskaintzen dio
- Gostinen ildo beretik, egile zinemaren eragina
- Zinema erreferentzia anitz
- Testuinguru digitalaren baldintzak

Euskarazko zinema kritikaren erronkak

- Mugak apurtu eta sarean garatzea
- Benetako zinema kritikaren aldarria

